



## Ganaduzaleen urteroko hitzordua, Ferialekuan

**TOLOSA ▶** Probintziako XXXVI. Abelgorri Lehiaketa izango da bihar, goiz osoan, Ferialekuan

**SEI ▶** Suitza, friso, pirenaika, blonda, limousina eta txarolesa arrazako abelgorriak egongo dira ▶ 2

**TOLOSA ▶**


### Def con dos taldearen zuzeneko, Bonberenean

Bihar, Potemkin eta Sharon Stoner ▶ 3

## Bi lagunen arteko apustutik sona handiko aizkora lehia izateraino

**IBARRALDEA ▶** Berrobiko Mikel Belauntzaran eta Belauntzako Iban Urretabizkaia aurrez aurre izango dira bihar, Berrobiko frontoian ▶ 6

L. GARCIA



**ZIZURKIL ▶**

### Luis Mari, Amaia eta Agurtzane Nuñezen margolanak

Aita-alaben koadroak ikusgai dira Atxulondo kultur etxean ▶ 4

Luis Mari Nuñezek egindako margolan bat. HITZA

**AMEZKETA ▶**

## Aparkaleku berria hilabete amaierarako izatea espero dute

40 autorentzat lekua izango du; laster hasiko dira lurzorua txukuntzen ▶ 5



Lanak, Amezketa eta Abaltzisketa batzen dituen errepidean. M. S. S.

**LEITZA ▶**

### Egur loteen enkantea, beste herrikoekin

Udalbatzak hartu berri du erabakia ▶ 7

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

AHTrik ez!  
Sozialismoa bai!

Ingurumenari, nekazaritzari, ekonomiari, lurralde orekari, eta, ondorioz, gizarte osoari, hainbeste kalte ekarriko liokeen Abiadura Handiko Trena (AHT) egitasmoaren aurka gaude. Datuak isildu eta informazioa ezkutatu eta inposizioa beste biderik ez duen proiektu baten aurrean gaude. Negozio ikaragarri bat baino ez da, negozio politikoa eta enpresariala. Ez dute lotsarik, «garapen iraunkorraren» moztarpean AHTren proiektua zuzitzeko, egia oso bestelakoa eta justu kontrako denean. Nahitaezkoa deritzogu AHTren inguruan eztabaida eta oposizioa hedatzen segitzeari. Zeregin ezinbestekoa dugu, desarrolismoaren eragin suntsitzailerak geldiarazi eta egungo garraio eta gizarte eredu xahutzailerak errotik aldatuko badugu. AHTri emango zaion erantzun honetan bateratzea garrantzitsua da.

Helburu hori aurrean, AHT Gelditu! Elkarlanak urrirako bi

ekimen nagusi antolatu ditu AHTren aurkako mugimenduari indar berria emateko. Bate-tik, urriaren 13tik 21era bitarte, hainbat erakunde, gizarte mugimendu eta herri kaltetuetako bizilagunek Aldarrikapen Gunea antolatuko dute Gasteizen, Eusko Jaurilaritzaren aurrean. Bestetik, Aldarrikapen Guneari amaiera emateko, manifestazioarako deia egiten du urriaren 22an, Bilbon, gizarteak AHTren inposaketari «ez» esan diezaion, behar bezain ozen eta indarrez.

AHTren aurka dagoen mugimendu askotariko eta zabalak, arrazoi horiekin, zeregin eta antolatu diren mobilizazioekin bat egiten du. Kontua da nola lortu AHT bezalako proiektu antiekologikoak eta antisozialak gelditzea? Iraultzaile eta marxistontzat AHTren auziak kapitalismoaren aurpegi gordinena erakusten digu. Gaur, gizateriak aurre egin behar dion naturaren suntsiketak, miseriak, goseak, langabeziak... bezalako arazo handiek erantzule bat dute: krisi sakonean egon arren hondamendia areagotzen duen kapitalismoa.

Arazoa kapitalismoa da. Etekin enpresarialak eta pribatuak herritarren ongizatearen eta ingurumenaren gaitetik jartzen baititu. Ekonomia kapitalistaren funtsa hazkunde iraunkorraren dogma da. Hazkunde eredu hau guztiz harraparria da.

Hazkunde ekonomikoak dena hormigoiz eta zementuz betetzera, Abiadura Handiko Trena, autobide gehiago, portu gehiago, energia zentral gehiago... eraikitzea behartzen du. Europan azpiegiturak estaltzen duten luraren %1,2 hemengoek %2,5 nahiz hartu! Eta Euskadin biztanleriak azken hogeit urteetan gora egin ez badu ere! Botere eta elite ekonomikoek diseinatu dute etorkizuna, eta lekuko jauntxoek sutsuki bultzatzen dutena, aurrerakuntzaren, lehiakortasunaren eta modernotasunaren izenean, herritarrei parte-hartzen utzi gabe inposatu digute. Sistema demokratiko batean bizi omen gara; baina, nor aukeratu ditu Mundu-Merkataritza Erakundeko (MME), Nazioarteko Diru-Funtsako (NDF), Munduko Bankuko (MB), Europako

Industria nagusien Mahaiko (ERT) enpresaburu horiek gizarte osoaren izenean hitz egiteko? Azken batean, ez da posible ekoizpena, garraioa eta kontsumoaren katea neurtua izatea, globalizazio ekonomiko kapitalista desegin gabe. Produktio-indarren jabego pribatu eta burgesiaren eskuetan ahal diren etekin gehienak pilotzean oinarritzen den eredu kapitalistak ezin duela populazioaren gehiengoaren beharrik asetu eta naturaren mugak errespetatu begi bistan daukagu.

Bestelako gizarte, ekonomia garapen eredu bat behar dugu. Marxistok pentsatzen dugu ezinezkoa dela kapitalistak konbentzitzea. Inoiz ez du klase agintari batek borondate bere pribilegioei uko egin. Horregatik, lehenik lekuko burgesiaren aurka egin behar da. AHT gelditzearen alde... eta ahal diren errekorte sozial guztiak egin dituen euskal burgesia nazionalaren aurka egin behar dugu. Arazo sozialak bezala baita arazo nazionalaren konponbidea ere, gehiengoaren langile klasea elkartzu ba-

karrik etorriko da. AHT bezalako kapitalismoaren ondorio kaltegarrien aurka egin behar da, baina arazoa globala da, eta borroka marko horretan ere kokatu behar dugu. Langile klasea eta ikasleak elkartu egin behar dira, baita muga nazionalen gainetik ere, boterea hartu eta gizarte berri bat eraikitzen hasi. Kapitalismoa desegin behar dugu. Banku, nazioz gaindiko korporazio eta enpresak espropiatu, eta aberastu hori guztia langile eta zapalduen eskuetan jarri.

Horrela, demokratikoki ekonomia planifikatzea posible litzateke. Posible da munduko bestelako gizarte eredu bat eraikitzea, guztion ongizatea, osasuna... baita naturarena ere bermatuz. Bestelako mundu global bat posible da, baita beharrezkoa ere; baina inork ez digu oparitu. Antolatuta gauden erakunde eta tokietan ideia iraultzaile eta marxista hauen alde lan egin behar dugu. Bestelako Euskal Herria posible da, baina sozialismoarekin!

MANU ODRIÓZOLA (AHT GELDITU! ELKARLANEKO KIDEA) ▶ ANOETA

## TOLOSA ▶ GIZARTEA

Probintziako XXXVI.  
Abelgorri Lehiaketa  
Ferialekuan, bihar

Suitza, frisoj, pirenaika, blonda, limousina eta txarolesa arrazako abelgorriak izango dira ikusgai, goiz osoan



laz ere makina bat jende bildu zuen Probintziako Abelgorri Lehiaketak, Ferialekuan. OLAIJA ESKITXABEL

## NOELIA LATABURU

Ganaduzaleen erreinu bilakatu da bihar Tolosako Ferialekua, bertan egingo baitute Probintziako XXXVI. Abelgorri

Lehiaketa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Kutxaren, Tolosako Udalararen eta Ganaduzale Elkartearen laguntzarekin.

Erakustaldiak, lehiaketak eta sariak izango dira nagusi goiz

osoan. Aurtengoan sei taldetan banatu dute lehiaketa: suitza arrazako abelgorriak, frisoj arrazakoak, pirenaika, blonda, limousina eta txarolesa arrazakoak. Talde bakoitzak, halaber,

honako atalek osatuko dute: suitza arrazakoetan, 18-30 hilabete bitarteko bigarak, 2 urtetik 4 urte eta erdi bitarteko behi gazteak, eta 4 urte eta erditik gorako behiak. Frisoj arrazakoetan barnean, berriz, 12-18 hilabete bitarteko bigarak, 18-30 hilabete bitartekoak, 2 eta 3 urte bitarteko behi gazteak, 3 eta 4 urte bitarteko behiak, 4 eta 5 urte bitartekoak eta, azkenik, 5 urtetik gorakoak. Pirenaika arrazakoak lau taldetan banatuko dituzte: 10-20 hilabete artekoak, 20-30 hilabete bitartekoak, 2 urte eta erditik 5 urte bitarteko behi gazteak, eta 5 urtetik gorakoak. Blondetan ere lau talde izango dira: 12-24 hilabete bitarteko bigarak, 2 eta 3 urte arteko bigarak, 3 eta 4 urte bitarteko behi gazteak eta 4 urte eta erditik gorako behiak. Limousina arraza ere lau taldetan banatuko dute, adinaren arabera: 12-24 hilabete bitarteko bigarak, 24-36 artekoak, 3 urtetik 4 urte eta erdi bitarteko behi gazteak, eta hauen gorakoak azken taldean. Txarolesa arrazakoekin erakusketak egingo dute.

Banatuko dituzten sariak ere ez dira nolananahikoak izango. Aipatutako talde bakoitzeko lehendabiziko sailkatuari 250 euro eta garaikurra emango diote; bigarrenari, garaikurra erekin batera 215 euro; eta gai-

nontzekoei 180 euroko saria. Erraperik onenarentzat ere 250 euroko saria banatuko dute, eta sari bera jasoko du *Aberekin*-eko haziz sortutako kume emerik onena duenak. Pirenaika arrazako bururik egokienarentzat ere HEBE saria izango da, 250 eurotako. Diru kopuru hau eta diploma arraza bakoitzeko etekin handiena eman duen behiaren jabearentzat izango da.

## Bete beharrekoak

Goiz osoan irauko du lehiaketak, baina antolatzaileek jakinarazi dutenez, abelgorriak azokara 08:00ak baino lehenago eraman beharko dituzte abeltzainek, eta aurrez osasun kalifikazioa indarrean daukaten aziendako Ustialegiak erakutsi beharko dute, bai eta osasun-azterketa —gehienez ere hilabete aurretik— egina izanaren ziurtagiri ofiziala. Honekin batera, abereen jatorrizko eta osasunaren gida ere eraman beharko dute.

Lehiaketa bukatu ondoren, bost bigara zozketatu dituzte, eta Gipuzkoan jaio eta hazitako bigantxa eta idiskoak jarririko dituzte salgai enkante bitarteko. Tolosako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak 150 eta 300 euroko laguntza emango dute.

TOLOSA ▶

**Salleko taldeari 69-66 irabazi dio Aralar Tolosak**

Senior mailakoek etzi goizean jokatuko dute, Bizkaian; kadeteek, berriz, bihar, etxean

I. ETXEBESTE

Aralar Tolosak 69 eta 66ko emaitzarekin hartu zuen mendean joan den larunbatean Salleko taldea, eta, ondorioz, denboraldiari bikain ekin diola esan daiteke. Izan ere, etxean beste garaipen bat lortu dute tolosarrek. Senior mailakoek, berriz, Portugaleten (Bizkaia) izango dute datorren neurketa, etzi, 12:15ean, Asti Leku Tsunami taldearen aurka; eta kadeteek bihar jokatuko dute, Usabal kirol eta aisialdi gunean, 11:00etatik aurrera. Tolosa Argysan eta Allerru SBT taldearen artekoa izango da.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112)) Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
  - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
  - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
  - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
  - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
  - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
  - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
  - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
  - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
  - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
  - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
  - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
  - ▶ **Tolosa.**
    - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
  - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurraremendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ KULTURA



Def Con Dos taldea osatzen duen laukote madrildarra Bonbereneako taulan ariko da gaur gauean. HITZA

# Kontzertu eta ekimen ugari egunotarako Bonbereneako taulan

Def Con Dos taldea ariko da gaur, eta Potemkin eta Sharon Stoner biharkoan; datorren asteburuan, 5. Skate Txapelketa

IRATXE ETXEBESTE

*Recargando* izeneko lana aurkeztuko dute gaurkoan Def Con Dos taldekoek Bonbereneako taulan. Izan ere, Madrilgo musikariak kontzertua eskainiko dute, 22:30etik aurrera. Manolo Tejeriogok, Peon Kurtzek, Kiki Tornadok, J. Al Andalusek, Juanito Sangrek eta Cesar Strawberryk osatutako taldeak ikuskizuna eta kantu berriak eskainiko ditu aldi berean Bonberenean joaten diren guztien aurrean; bertako kideek deialdi zabala egin dute herritarrak kontzertura hurbildu daitezke.

Ez da hori, ordea, asteburuan izango den kontzertu bakarra. Izan ere, bihar Potemkin eta Sharon Stoner musika taldeek jardungo dute leku horretan ordu berean hasita. Oñatiko Potemkin taldekoak Bonbereneako grabaketa estudioan izan ziren uztaila bukaera eta abuztu hasiera bitartean beren azken lana grabatzeko, eta orain dute txanda kantu berriak jendaurrean aurkezteko. Haien saioa amaitu bezain laster hasiko dira Sharon Stoner taldekoak lanean. Hiru emanaldi horiez gain, egitarau zabala prestatu dute Bonbereneako kideek urri osorako; musika emanaldiak ez ezik, beste-

EGITARAU ▶

Datorren asteburuetan Bonberenean izango diren kontzertuak eta bestelako ekimenak dira honakoak:

**GAUR, OSTIRALA 22:30.** Def Con Dos taldea.

**BIHAR, LARUNBATA 22:30.** Potemkin taldearen kontzertua izango da lehendabizi, eta Sharon Stoner taldearen emanaldia horren ostean.

**HILAK 21, OSTIRALA 22:30.** Lehenik eta behin, Señor No taldearen saioa izango da, eta hori amaitutakoan Electric Riders taldekoek jardungo dute.

**HILAK 22, LARUNBATA 15:00.** Graffiti erakustaldia. **16:30.** Bonberenea 5. Skate Txapelketa Bonbereneako egoitzaren kanpoaldean. **22:30.** Kuraia taldearen kontzertua.

**HILAK 28, OSTIRALA 22:30.** Anje Duhalde musikariak kontzertua eskainiko du bere taldearen laguntzarekin.

lako ekimenak ere izango dira herritar guztientzat.

Bonbereneako kideen hitzetan, «kontzertu bereziak» izango dira guztiak ere, taldeetako batzuk lehendabizikoz etorriko diren bezala, beste batzuk enegarrenez ariko direlako taula gainean. Han eta hemen jarduteagatik sona handia lortu duten musika taldeek egiten duten lana ezagutzeko aukera izango dute, lau sosen truke, egunotan Bonberenean joaten direnek.

Bestalde, Skate Txapelketa antolatuko dute Bonbereneakoek datorren asterako. Bosgarren edizioa du honezkero txapelketa horrek, eta egoitzaren aurrealdeko patioan egingo dute lehia, betiko moduan, txapelketan parte hartzea erabakitzen dutenek. Arratsalde partean izango da, eta Kuraia talde arrakastatsuen emanaldiak emango dio bukaera graffiti erakustaldiarekin hasitako egunari.

IBARRA ▶

**Elkartasun Egunaren inguruko argibideak**

Alurr dantza taldeak jakinarazpena egin du egitarauetan azaldu zen informazioaz

ERREDAKZIOA

Alurr dantza taldeko Juntak jakinarazi nahi du joan den asteazkenean Ibarra izan zen Elkartasun Eguneko ekitaldietan ez zuela Alurr dantza taldeak parte hartu, bai zik eta bertako kide batzuek; dantzariak beren izenean jardun zuten. Izan ere, Alurr dantza taldeak ahobatez erabakita dauka inolako ekitaldi politikitara parte ez hartzea. Egun horren harira prestatutako egitarau guztietan azaldu da Alurr dantza taldearen izena, eta horrek sor lezakeen nahasmenaren aurrean, dantza taldearen ildo zain den argitzea beharrezkoa iruditu zaio Alurr-eko Juntari. Bestalde, dantza taldeak bere 10. urteurreneko ospakizunen harira urteotako irudiek osatu duen bilduma salgai dago Ibarra Zubiaurre tabernan eta Lourdes liburu dendan, eta Tolosako Ortzadar dendan (Maxi Eroskiren parean), 12 eurotan.

TOLOSA ▶

**Gaur irekiko dute Haur Liburutegi berria, Errotan**

ERREDAKZIOA

Lehen Kultur Etxean zegoen Haur Liburutegia Errotan zabaltzekoak zirela jakinarazi zuten udal arduradunek, eta gaur arratsaldean zabalduko dute, hain zuzen ere, liburutegi berritua hainbat hilabeteko obren ostean. 17:00etatik 20:00etara izango da zabalik herritarrentzat.

**ENKARGUETARAKO**  
tolosaldeko mutil bat behar da,  
urria, azaroa eta abenduan  
Interesatuak deitu **685 730 204** telefono zenbakira

## ZIZURKIL ▶ KULTURA



Tolosako Santa Maria eliza eta bere ingurua. HITZA



Anoetako herria azaltzen da erakusketako koadro batean. HITZA



Agurtzane Nuñezeren lanetako bat. HITZA

# Zuri-beltzean, kolore puntu batekin

Luis Mari Nuñez tolosarraren eta haren alaba Amaiaren eta Agurtzeneren margolanak ikusgai Atxulondo kultur etxean

IMANOL GARCIA

Luis Mari Nuñez tolosarrak —egun Anoetan bizi da— eta haren bi alaba Agurtzane eta Amaia Nuñezek beren margolanak erakusten dituzte Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean. Hilaren 21a arte dago aukera erakusketa bisitatzeko eta hala nahi izanez gero, erakusten diren koadroak erosteko ere. Asteheneretik ostiralera daude ikusgai, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Luis Mari Nuñezek ikatz-marrazkiz egindako koadroak jarri ditu, eta baita boligrafoz egindako bat ere. Zuri-beltzean du gogoko margotzea. Betida-

nik izan du margotzeko zaletasuna Nuñezek, baina erakusketak egiten 1996tik hasi zen modu jarrai batean. Esaterako, Beasaingo kultur etxean, Bingo Londres-en eta Tolosako Fron-ton kafetegian erakutsi ditu bere lanak. Hurrengo erakusketa, eta «ilusio handia» egiten diona, Tolosako Aranburu Jaurregian izango du, urtarrilaren 13tik otsailaren 14ra.

Margotzeaz gain, Nuñezek gustuko du ere ikusleen iritzia jasotzea, eta ahal duenean erakusketa dagoen lekuan izaten da, solasaldirako prest. «Jendeak gauzak galdetzen ditu edo iritziak ematen ditu, eta interesgarria da bertan egotea,

asko jasotzen baituzu», azaltzen du margolariak.

Amaia eta Agurtzane Nuñezek pastel teknikaz egindako koadroak erakusten dituzte. Aitak zuri-beltza erabiltzen badu, kolorea da alabaren lanaren ezaggarri deigarrietakoa. Biek azaltzen dutenez, «gustatzen zaigun afizioa da, eta ahal dugunean margotzen dugu, denbora edo gogoa dugunean». Beste zenbait erakusketa ere egin dituzte eta, Agurtzane Nuñezek dioenez, «gustura entzuten dira jendeak egiten dituen



Amaia Nuñezek erakusketan duen margolanetako bat. HITZA

komentarioak. Egiten duzun zerbait besteek ikustea ederra da». Teknika ezberdinak eta taino handiagoko koadroak

egiteko asmoa dute, margolari bezala «garatzen joateko». Amaia Nuñezek azaltzen duenez.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Zerbitzaria.** Asteburuetarako zerbitzari bat behar da. Deitu: 635 70 05 59.

**Langilea.** Iturgintza, berokuntza eta gas lanetarako langilea behar da. 656 41 68 08.

### SALEROSKETAK

**Saxofoia.** Saxofoi altu bat erosiko nuke, Yamaha etxekoa. Deitu: 685 78 36 65.

**Etxebizitza.** Villabonan pisu berritua salgai. 2 logela, guztia kanpoaldera. Berokuntza. Deitu: 655 73 76 29.

### AURKITUAKOAK

**Zakurra.** Zakur bat aurkitu da Montezkuen. Euskal Artzaina nahasketa, marroia, lepoko marroiarekin, lau bat hilabetekoa. Galdu duenak dei dezala 943 65 00 30 zenbakira (Koldo).

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Inkesta.** Eskualdeko merkatariek kanpainak egiten dituzte herritarrek erosketak herriatik atera gabe egin ditzaten. Non duzu ohitura erosketak egiteko? Azpiko irudian dituzu orain arteko datuak. Eman zuk ere zure iritzia.



## LARRAUL ▶

### Pintzel txinatarrez egindako lanak ikusgai

Laura San Juan margolariaren erakusketa gaur inauguratu dute Larraulgo Herri Ostatuan. Pintzel txinatarrez egindako lanak erakutsiko ditu artistak, hilabete osoan. Bestalde, bihar, 17:00etatik aurrera, San Juanek pintzel txinatarrekin erakustaldia egingo du, Herri Ostatuan bertan.

## ZIZURKIL ▶

### Pilota partidak Intxaur pilotalekuan

Gaur arratsaldean Diario Vasco Pilota Txapelketaren partidak izango dira Intxaur pilotalekuan. 19:30ean hasiko dira norgehiagokak. Promesetan, Iraola-Gorrotxategi eta Ujuel-Legarreta ariko dira. Seniorretan, berriz, Apezetxea-Arruti eta M. Gonzalez-Aldaz izango dira nor baino nor.



## AMEZKETA ▶ HIRIGINTZA



Oraindik hankaz gora dago gunea, baina laster hasiko lurzorua txukuntzen. MARTA SAN SEBASTIAN

# Aparkaleku berria hil bukaerarako prest izatea espero dute

40 autorentzat lekua izango du, eta 1.135 m<sup>2</sup>-ko lurzorua hartzen du

MARTA SAN SEBASTIAN

Amezketatik Abaltzisketara joateko hartu behar den bide bazterra obretan dela bat baino gehiago ohartuko zen dagoeneko. Bertan, 40 autorentzat aparkalekua egiten ari dira, izan ere, laster herrian egingo den barianteak aparkaleku asko desagerraraziko ditu.

Helburua Amezketa eta Abaltzisketa herriak batzen dituen errepidearen eskuineko bazterrean aparkalekua egitea da. Urte bukaeran edo 2006ko hasieran egingo den bariante berriak hainbat autorentzat aparkaleku ziren gunek jango ditu, eta denbora horretan «autoak aparkalekurik gabe

geratzea ekidin» nahi du Udalak.

Aparkaleku berriko obrak iraila hasieran hasi ziren, eta amaitzeko bi hilabeteko epea izan dute Pagozelai enpresako langileek. Dagoeneko hormak eginak daude eta txukuntze lanetan dihardute; lurzoruan galipota botatzea falta da. Beraz, bi edo gehienez hiru aste barru, amezketarrek aparkaleku berria prest izango dute.

Behartzana Jatetxe ondoko muinoan indusketa lanak egin ondoren, lur laua eratu dute, aparkalekuarako aproposa. 1.135 m<sup>2</sup>-ko lurzorua egokitu dute, 40 autorentzat aparkaleku izango dena; horietatik 15 lerroan eta 25 baterian. Irteera

alboko jatetxe aurrean egingo dute, 100 metro ingurura.

«Asteburuetan jatetxe inguruan auto asko izaten dela eta», Udalak aparkaleku hau egiteko erabakia hartu zuen. Gainera, laster egingo den bariante berriak hainbat aparkaleku galaraziko dizkio herriari. Hori dela eta, Udalak «beharrezkoa» ikusten zuen aparkaleku berri hau eratzea bariantea eraiki aurretik.

## Bariantearen zain

2006. urte hasieran dira haste-koak bariante berriaren lanak. Lurren espropiazioa egin da, eta Aldundiak onarpena eman du. Orain, lanen esleipen prozesuan dago Udala. Bariantea erreka ezkerrean egingo dute, eta herriko trafikoa arintzea izango du helburu, kamioiak bertatik igaro daitezela.

## IKAZTEGIETA ▶

## Gaur liburutegian hitzaldia Xabier Arrazolarekin

Gaur, 17:00etan, hitzaldia izango da Udal Liburutegian. Hizlaria Xabier Arrazola psikologoa izango da, eta *Psicologia bizitzako ezbeharren aurrean* izango hitzaldiaren ardatza. Arrazolak hainbat gai interesgarri jorratuko ditu solasaldian; hala nola, bikote arteko harremanak, adikzioak, lan mundua, istripuak edota gaisotasunak. Hori guztiari aurre egiteko eta depresioa bezalako gaisotasunetan ez erortzeko, psikologiaren onurak defendatuko ditu Xabier Arrazola adituak. Kutxa Fundazioak antolatutako hitzaldia izango da.

## ALTZO ▶

## Jubilatu Eguna ospatuko dute igandean

Igande honetan, hilak 16, Jubilatu Eguna egingo dute Altzon, urtero legez. Eguneko lehen ekitaldia Meza Nagusia izango da, 11:15ean. Ondoren, pilota partidua izango da. Zehazki, San Inazioetan jokatzeko gelditu zen hirugarren partida jokatu dute, euria zela eta atzeratzea pentsatu baitzuten. Bazkal aurretik, Mañukorta eta Mendizabal bertsolariek giroa bertuko dute euren bertso saioarekin. Arandia jatetxean egingo den bazkarirako 22 lagunek eman dute izena. Ondoren, bertsolariek eta trikitilariek jai eguna animatzen jarraituko dute.

## IKAZTEGIETA ▶ POLITIKA



## Kutturru atsedenekuaren inaugurazioan protestan

M.S.S. ▶ Pilarika jai egunean Kutturrin atsedenekua estreinatu zuten Ikaztegiatan, eta Ikatz herri plataformakoek *Herriaren hitza errespetatu. Dimisioak* lelopean protesta isila egin zuten. 25 lagun inguru bildu ziren protesta horretan. Atsedenekuaren inaugurazioan egungo udalbatza eta Foru Aldundiko kide batzuk zirela aprobeztatu zuten euren aldarrikapena egiteko. «Azken hauteskundeetako *apartheid*-a salatu nahi genuen, eta Ikatz herri plataformari Udalean dagozkion eserlekuak itzultzea ere bai», adierazi dute. Alkatearen eta zinegotzien dimisioa ere eskatu zuten protestan. HITZA

hitza **txokoa** <sup>lagunen</sup>

# Egin zaitetz harpidedun!

▶ 45 €-ren TRUKE, HITZA egunero jasotzeaz gain, HAINBAT ABANTAILA izango dituzte harpidedunek. Harpidedunen txartela izango dute, besteak beste, eta HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera.

▶ HITZAren harpidedun izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolasaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

## AIZKORA ▶



Ezker-eskuin: Mikel Belauntzar berrobitarra eta Iban Urretabizkaia belauntzarra, atzo. IMANOL GARCIA

IMANOL GARCIA

Lagunarteko ika-mika ikusmin handia sortu duen apustuan bihurtu da. Berrobiko Mikel Belauntzar eta Belauntzako Iban Urretabizkaia aizkolari gazteek bihar gauean, 22:30ean, izango dute hitzordua, Berrobiko frontoian. «Parranda giroan sortutako apustua izan zen», azaldu dio Urretabizkaia HITZARI. «Mikelek bi joko-edo eginda zeuzkan, eta gure artean ibiltzen ginen erdi broman ea zeinek irabaziko zuen, eta azkenean serio hartu eta apustua egin dugun».

«Eskuetatik alde egin digun gauza batean bihurtu da», dio Belauntzarnek. «Gure arteko apustu bat zen, gehienez bi herrien arteko lehia edo, baina azkenean hori guztia gainditu du». Nazio mailako komunikabideetan ere apustuaren berri ematen ari dira, eta herri kirolen munduan sortu duen ikusmina gehiegi ez ote den pentsatzen dute bi lehiakideek.

Sei kanaerdiko moztu behariko ditu bakoitzak, eta mila euro dituzte jokoan. Belauntzarnek Urretabizkaia baino eskarmentu handiagoxea du, baina bietatik inor ez da aritu txapelketa ofizialetan. Berrobiko fes-

## Bi lagun arteko apustua baino gehiago

Belauntzako Iban Urretabizkaia eta Berrobiko Mikel Belauntzarnek beren indarrak neurtuko dituzte bihar

tetan izan zuen lehenengo aizkora lehia Belauntzarnek, eta ordutik arra sartu zaio. Urretabizkaientzat, berriz, lehenengo aldia izango da jendeaurrean aizkoran egingo duena. «Jendeari erraza dela iruditzen zaio, baina uste baino zailagoa da», azaldu du Belauntzarnek. «Normala da aizkolari berria ez azaltzea», gaineratzen du Urretabizkaia. Aizkoran aritzea duen kostua ere aipatzen dute bi kirolari gazteek: aizkora dela, enborrak direla... Horrela, apustuan sarrera jarriko da, 10 eurotako, «enborren gastuei-eta au-

rrer egiteko», diote bi aizkolariak. Federazioari apustuaren berri eman behar izan diote, eta bertatik etorriko dira bi epaile. Lehiaketaren amaieran dopin kontrola egin behar izango dute, gainera. Federazioaren arauak jarraituz.

Serio hartu dutela garbi dago, biek dauzkaten kirioak erakusten dutenez. Hiru hilabete inguru daramatzate prestatzen, eta azken egunotan ez daukate beste ezer buruan. Dema interesgarria izango da, behintzat, apika etorkizunean aizkoran bidea egingo duten bi gazteren artekoa.

## LEABURU ▶

### Sendabelar ikastaroan izen-ematea amaitzear

Sendabelar ikastaroa antolatu dute herrian. Hilaren 19an, asteazkena, hasiko da, eta 19:00etatik 21:00etara emango dituzte eskolak. Izena eman nahi duenak gaur du azken eguna, udaletxera joz (943 67 59 31).

## BERASTEGI ▶

### Pirritx eta Porrotx pailazoan 'Patata, patata', bihar

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Berastegiko Udarekin elkarlanean, Pirritx eta Porrotx pailazoan *Patata, patata* ikuskizuna izango da bihar, 17:30ean. Sarrerak salgai, 5 eurotan, udaletxean eta Galtzaundiren egoitzan.

## LEABURU ▶

### Gernikako azokara joateko autobusa

Leaburuko Udalak Gernikako azokara joateko autobusa antolatu du. Oraindik lekua badagoela eta, gaur arte zabaldu dute izena emateko epea, udaletxean (943 67 59 31). Tolosaldeko biztanle guztiei egin diete deia.

**Ipuin harrigarriak**

Herri literaturaz gozatzeko kondairak, ipuinak, istorio bitxiak

- 1 Ipuin harrigarriak 1  
Kastillopranko  
Biribil-biribilak
- 2 Ipuin harrigarriak 2  
Dar-dar  
Ondo eginaren ordaina
- 3 Ipuin harrigarriak 3  
Gatza ala erregea  
Biziak ezagutzeko hil
- 4 Ipuin harrigarriak 4  
Zapatari asmatzailea  
Zerraldan bizirik
- 5 Ipuin harrigarriak 5  
Ikazkina eta heriotza  
Besterik ez bezalako kapela
- 6 Ipuin harrigarriak 6  
Estudiante Tonto  
Ezkonberriak
- 7 Ipuin harrigarriak 7  
Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki  
Zeruko berriak
- 8 Ipuin harrigarriak 8  
Pepetxu eta Popatxu  
Kardulaza salatari

**Urriaren 8tik aurrera  
ASTEBURUETAN**

**berria**

**+ 3 €**

Laguntzaileak

Euzko Lehen Unibertsitatea

Bizkaia

LEITZA ▶ UDALA

# Leitzako egur loteen enkantea beste herri batzuekin egingen dute

Nafarroako mendi aldeko sei herritakoak batera aterako dira; Leitzakoak, denera milioi erdi euroko balioa duten lau lote

JAIONE ASTIBIA

Hurrengo astelehenean Nafarroako Gobernuak berak Altsasun egingen duen egur loteen enkante bateratua, Leitzakoak ere aterako dituzte, Altsasu, Bortziriak, Doneztebe, Lekunberri eta Ultzamakoekin batera. Hala erabaki zuen Leitzako udalbatzak urriaren 7an egin zuen batzarrean.

Orain arte, basoen ustiaketari dagozkion egur loteen en-

kante bidezko salmenta Udalak berak egin izan du, baina azken denboraldian enkanteak eskaintzarik gabe geldituz joan direla eta, Nafarroako Gobernuak kasu beretsuan dau den herritakoak batera egiteko luzatutako proposamena jarraituko dute. «Egun berean bukatuko da horrela, epeen zain egon gabe», azaldu zuten.

Horrela, lau loteren enkantea egingen dute. Ibarlan, alertze jagoniarrezko basoaren argiketa

lanak dira egin beharrekoak, 895 oin ateraz; Koskainen, berdin, 4.044 larizio-pinu eta douglas izei ateraz; eta Lerinarten, beste 4.183 larizio-pinu. Laugarren lotea, Urdiñolako, basoa botatzea da, ordea. Hemendik, 7.388 oin pinu gorri eta 19 alertze dira ateratzekoak, ia 11,3 mila metro kubiko zur, 472 mila euroko balioa dutenak. Orotara, 505 mila eurotan aterako dira enkantera lau loteak.

GIZARTEA ▶

## Barategintza ekologikoa landuko dute ikastarotan

EHNE sindikatuak antolatu nahi ditu eskolak, heldu diren azaroa eta abenduan

J. ASTIBIA

Barategintza ekologikoa gai hartuta, ikastaroa egingen du EHNE sindikatuak Leitzan, «zonaldeko sektoreko langileentzab», jakinarazi dutenez.

Ikastaroa azaroan eta abenduan egitekoak dira, astean hirutan, arratsalde, «astelehen, ostegun eta ostiralez», zehaztu dutenez. FORCEN-eko teknikarien eskutik egingen da, eta bertan landuko dira gai horren inguruko hainbat arlo: «Lurraren oreka nola mantendu, laboreen errota-

zioz eta, esate baterako, haziak jasotzeko tenorea orain denez, horiek nola berezi eta zaindu, mintegiak nola egin, konposta... Horrelakoak landuko dira», argitu dute EHNEtik bertatik.

Orain taldea osatzeko lanean ari omen dira, eta izena emateko epea zabalik dago. Horretarako, interesa dutenek 948 25 48 41 telefono zenbakira deitu besterik ez dutela zioten, «oraingoz, nekazaritzan eta abeltzaintzan lan egingen dutenei» bideratua da ikastaroa.

ARESO ▶ KIROLAK

## Mikel Olazabalek gaur Errotxapeako finala du

Aresoarrak Azanza izanen du lagun atzeko koadroetan, eta Lazkoz-Irureta aurkari

J. ASTIBIA

Mikel Olazabalek gaur arratsaldean Errotxapeako txapelketa finala jokatuko du, egiten ari den denboraldi onari beste txapela bat eransteko aukera izanez. Honetakoan, Azanza du bikote aresoarrak, eta Lazkoz-Iruretaren aurka Errotxapeako pilotalekuan jokatuko dute, 17:30ean hasiko den jaialdian.

Aipatu beharrekoa da sari-keta honetan Unai Onsalo, Aresokoa hau ere, zela aritzekoa, eta final-laurdenak arte halaxe egin zuela. Osasun arazo batzuk medio ez zuen aurrera jarraitzerik izan, eta txa-

pelketako fase horretatik aurrera Olazabalek ordezkatu zuen.

Bestalde, Nafarroako Kirol Jolasetako txapelketan, buruz-burukoan eta frontoi osotan, ere parte hartuko du, igandean, 16:30etik aurrera, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Olazabalek Iraola eta Minaren arteko irabazlearekin jokatuko beharko du kanporaketa. Aurrera pilota eskolatik zehaztu dutenez, bestalde, «joku hauetan gure eskolako ikasle guztiek hartuko dute parte». «Otsaila arte, astebururo izanena ditugu partiduak, etxean eta kanpoan, txandaka», zehaztu zuten.

LEITZA ▶ IKURRINA



## Ikurrina jarrita azaldu da urriaren 12 goizean

J. Astibia ▶ Urriaren 12ko goizean, «Hispanitatearen eta Indar Armaturen eguna» delakoan, udaldekoko balkoian ikurrina azaldu zen jarrita, lehenengo azaroaz geroztik hutsik dagoen mastan ber-

tan. Horrekin batera, besteak beste *Alde hemendik* lelodun pankarta handi bat ere ageri zen. Ikurrina atzorako mastatik kendua zegoen beste behin ere. J. ASTIBIA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urriaren 14a, ostirala ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



17

hotzena

15



BIHARKO EGURALDIA



goizez arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Gaztelu.** Iturraundi plataformaren batzarra. 20:00etan, ohiko lekuan.

### JAIK

**Berazubi auzoa (Tolosa).** 22:30ean, danborrada; 00:00etan, Drindots taldea.

### KIROLAK

#### GAUR

##### Areto futbola.

- ▶ Bilkoin Leg.-Transp. Lakuntza (1. Maila A). 22:00, Legorreta.
- ▶ Laskorain-Tinta Billabona (Emakumezkoen Senior Maila). 20:45, Illarramendi.

##### Pilota.

- ▶ Gazteleku-Aurrera Saiaz (Mattin de la Sotilla-Julen Etxeberria; kadeteen 2. Maila). 20:15, Andoain.
- ▶ Arrasateko-Aurrera Saiaz (Koldo Galarraga; gazteen 1. Maila). 20:00, Arrasate.
- ▶ Aurrera Saiaz 1-ikaskirola (Aratz Irazusta-Iñaki Errazkin; gazt. 2. Maila). 20:15, Beotibar.
- ▶ Aurrera Saiaz- Hernani (Garikoitz Galarraga; nagusien 1. Maila). 20:15, Beotibar.

##### Zesta-punta.

- ▶ Beotibar 2-Zumaia 6



## Ikasturtea hasiko du Txiribitu aisialdi taldeak

**IBARRA** ▶ Txiribitu aisialdi taldeak (San Bartolome parrokia) ikasturte berria aurkeztuko du bihar, 16:00etan. Jokoak eta merienda antolatu dituzte, besteak beste. Eta, gainera, udal-

kuetako diapositibak eta argazkiak ikusteko aukera izango dute (goiko irudian). Lehen Hezkuntzako 4. mailatik DBHko 4. mailara bitartekoie egin diete hitzordurako deia. HITZA

- (Artex-Garmendia; nagusiak).
- 19:30, Santa Luzia.
- ▶ Beotibar 3-Gazteleku 4 (Orrantia-Mujika; nagusiak).
- 19:30, Santa Luzia.
- ▶ Beotibar 1-Zumaia (Mujika-Telleria; kadeteak).
- 19:30, Beotibar.
- ▶ Beotibar 2-Donostia Jai Alai 2 (Izagirre-Bildarratz; kadeteak).
- 19:30, Beotibar.

#### BIHAR

##### Areto futbola.

- ▶ Hegoalde-Soto del Real (Emakumezkoen Ohorezko Maila). 18:00, Berazubi.
- ▶ Muriedas Urrutia-Ibarra (Nazional Maila A). 18:30, Muriedas.
- ▶ Beti Arin-Laskorain (Nazional Maila B). 17:30, Larrea.
- ▶ Ibarra-Castro Urdiales (Jubenilen Nazional Maila). 17:30, Belabieta.

#### Futbola.

- ▶ Tolosa-Indautxu (3. Maila). 16:30, Berazubi.
- ▶ Lengokoak-Danena (Lurraldeko 1. Maila). 15:30, Jasonebaso.
- ▶ Ordizia-Amaroz (Lurraldeko 1. Maila). 16:30, Ordizia.
- ▶ Tolosa B-Lazkao (Lurraldeko 2. Maila). 16:00, Usabal.
- ▶ Urnieta-Tolosa (Jubenilen 1. Maila). 17:40, Urnieta.
- ▶ Billabona-Beti Gazte (Jubenilen 1. Maila). 16:30, Arratzain.
- ▶ Oiartzun-Intxurre (Jubenilen 1. Maila). 15:45, Ugaldetxo.

- ▶ Danok Bat-Tolosa (Jubenilen Nazional Maila). 19:30, Bilbo.
- ▶ Groseko-Tolosa (Nesken Liga). 19:00, Matigoxotegi.

#### Futbol 7.

- ▶ Bar Ignacio Hondarribia-Ibarrako Gazte Asanblada (1. Maila A). 19:00, Felix Garin.
- ▶ P. Oasis-Continental Ind. (1. Maila A). 19:00, Andoain 1.

#### Pilota.

- ▶ Ozkarbi-Aurrera Saiaz (Ugaitz Renobales-Jabi Oteiza; nagusien 1. Maila). 17:00, Arrasate.
- ▶ Intxaurren-Aurrera Saiaz (Unai Aspe-Ruben Zapirain; nagusien 2. Maila). 11:00, Intxaurren.
- ▶ Beloki 1-Aurrera Saiaz 2 (Mikel Olaetxea-Iker Huarte; nagusien 2. Maila). 17:00, Zumarraga.
- ▶ Ilunpe 2-Aurrera Saiaz 1 (Axier Telleria-Ion Orbegozo; nagusien 3. Maila). 16:00, Azpeitia.
- ▶ Eibar-Aurrera Saiaz 2 (Igor Aranzabe-Ioseba

Senperena; nagusien 3. Maila). 18:00, Ipurua.

#### Zesta-punta.

- ▶ Zumaia 4-Beotibar 1 (Trabanzos-Rezola; nagusiak). 16:00, Carmelo Balda.

#### ETZI

#### Futbola.

- ▶ Munibe-Intxurre (Lurrald. 2. Maila). 13:45, Berio.

#### Futbol 7.

- ▶ Caravanas Tolosa-Metalicas Oleta (3. Maila D). 13:00, Beasain 2.

#### Pilota.

- ▶ Andazpe-Aurrera Saiaz (Iñaki Urkizu-Luis Angel Zubiri; kad. 1. Maila). 11:30, Usturibil.

#### MAHAI-INGURUA

**Tolosa.** *Ipuinartean I* jardunaldien barruan, *Kulturartekotasunari buruzko gogoetak*, mahai-inguruan. 20:00etan, Kultur Etxean.

#### MUSIKA

**Tolosa.** Def con dos. 22:30ean, Bonberenean.

#### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Tolosa.** Azpiroz, M. L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.

**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

#### IRRATIA

#### Txolarre (107.5, 101.2 FM)

**11:00-14:00.** *Tolosaldeko ahotsa:* eguraldia Joxe Landarekin; Hitzaren errepasoa, oharrak, agenda, elkarrizketak, albisteak...; *Ezkutuko koloreak* irrati nobela; lehiaketa eta disko eskainiak.

**19:00-21:00.** *Tolosaldeko ahotsa.*

**22:00-23:00.** *Arkako Show* musika saioa.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

**HITZA, zorion agurren tarte**

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletzeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

**Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?**

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez, 800 enpresa, kateak, denda, jatetxe... eta era guztietako enbriate baino gehiagok euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

[www.bai.euskarari.org](http://www.bai.euskarari.org)

**Bai Euskarari Ziurtagiria!**

**902 430026**

**Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!**




**OGI-GOXO**

**OKINDEGIA eta GOZOTEGIA**

kale nagusia, 26 • 20150 BILLABONA • Tel. 943 69 32 94





HITZA

## BEHARRETATIK ABIATUZ

Bezeroak gero eta gehiago daki autoen inguruan, eta eskariek ere gora egiten dute; maiatza eta uztaila bitarteko hilabetetan saltzen da gehien

# OPORRETATIK BUELTAN, SALMENTA ETA KONPONKETEK BEHERA

Ez da garairik onena autoen merkatuentzat; sektoreko langileek, behintzat, nahiago izaten dituzte maiztza eta uztaila bitarteko hilabeteak kontsumitzaile gehiago izaten direlako



Urte hasieran ematen diren igorrek latzak izaten dira edonorentzako, baina gaueko datari erreparatua ikasturte hasierak ere gogorak izaten direla esan daiteke. Oñandegietan nahari da, harrigarrietan eta leipandegietan, eta nola ez baita kontzesionario eta talleretan ere. Opel Giauton, Tolosa Motoren eta Anetoa Karrozeriak salhokietan oso argi dute hori. «Ikasturte hasierak gutxienezko diru lantzak, adierazi du Tolosa Motorreko Miguel Giberaledek.

Autoen kasuan ere bolada hobegoiak eta ikasturtegarako izaten dira eta horiek orratzidun dute zerikusia gure gonbidatuen esanetan. «Autoak salhoko garairik hoberenak maiztzeak hasi eta uztaila bitarteko hilabeteak izaten dira. Gara horietan jendea oportuna tokio prestakuntza lanetan hasten delako dela uste dut nik», dio Opel Giautoko Mikel Zubillagak.

Autoak erosteko bai, baina ibilgailuak konpontzeko ere horiek dira hilabete oparoenak. Tolosa Motorreko Giberaledek halaxe uste du, behinik behin: «Traila eta urria oso hilaibete lasaia izaten dira, jende gehiena uda baino lehen eta udako hilabeteetan etortzen da», dio izan ere, salhoki horietan «karrozeria, pintura eta mekanikaren konponketak» egiten dituzte sei lagun artean eta, ondorioz, jendeak oportuna joan aurretik mantentzen lanak egitera jotzen du bertara. «Ouk autoa behar den bezala edukitzeko beharrezkoak diren konponketak egiten ditugu, ez ditugu aleroiak eta horretarako jartzen, konponketa standarda bainik», adierazi du jabeak.

Anetoa Karrozeriak dendan

Autoaren motora, balaztak eta segurtasun neurriak ahal den egokien edukitzea da, itxuraren gainetik, garrantzitsuenak. «13»

**Opel Zafira berria**  
Malgu izateko, sekula baino jostagarriago

**Giauto**  
Olaso, 25, ELGEBAR  
Olaso, 1800ko, 29 EBKAK  
Olabarriko autoa, 265 BERGARA.  
San Andres auzoa, 109, ARRIKATIA/ONDORAGON.  
Yure auzoa, Karoli induslariak, 2/3, OLABERRIA.  
Berrito induslariak, 3, ANCIETA, TOLOSA.  
Tel. 902 34 51 23.

Zafira sofoa kontsumo mistoa (1100 km/l), 6,1-8,5 bitarte; CO2 emisioa (g/km), 165-228 bitarte.

SAAC FINANZIAL SERBIZIOA

**Mercedes-Benz**  
**Irura Motor, s.a.**  
Madrid-Ibun errepidea, 444 Km (burako zuzengana) • 20271 IRURA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 69 17 06 / 943 69 11 97 • Faxa: 943 69 22 16

9001-2000 ISO kalitate ziurtagiriak ■ 14001 ISO ingurumen ziurtagiriak  
■ IBI LGAILU INDUSTRIAL ETARAKO GIPUZKOAKO MERCEDES-BENZ TALLER BAIMENDUA  
■ ORDEZKO PIEZEN DEPARTAMENTUA

## MIKEL ZABALA ANETOA KARROZERIAK

«Inauterietan diru asko gastatzen du jendeak, eta ondoren guk nabaritzen dugu bezero gutxiago etortzen dela»

## MIGUEL GIBERALEDE TOLOSA MOTOR

«Batzuek autoak itxurarengatik bakarrik eramatea dituzte tailerrera; seguratsuna aintzat hartu gabe»

ere berdin, utzaga eta pintura lanak egiten ditugu», dio Mikel Zabala jabeak.

## Inauterietako aldapa

Urte hasiera eta ikasturte hasiera urteko garairik latzak diren arren, Tolosaldetan bada besterik ere, Inauterietan, hain zuzen, «Inauterietan jendeak diru asko gastatzen du eta ondoren guk nabaritzen dugu bezero gutxiago etortzen direla», dio Anetoa Karrozeriak-eko Zabalak. Lau langilek egiten dute lan bertan eta «lan gogorria den arren gustura egiten dutea diote» «astehenerdik larunbat goizera arte egiten dugu lan, ordu asko, baina lana egin behar dugu, bestela...».

Konponketak egiteko garrantzi handia izaten du urteko lehen hilabeteak ekitzea, ez, ordea, erosteko orduan. «Udako asio urtea bukatu aurretik etortzen da autoak erostera. Jendeari buruan sartu zaio urte hasieran ematen den igorera saihasteko pixka bat lehenago etorri behar duela, baina kontua da kontzesionarioetakoak maiztasun hasten direla orain salneurriak jgotzen, eta, beraz, alferrik dela hona urte amaitu baino lehen etortzea», argitu du Opel Giautoko Mikel Zubillagak.

Merkea izan ala ez, urte hasiera edo uda izan, kontua da autoak era egokian edukitzea behar direla. «oso garrantzitsua baita gure segurtasuna gidatzerako garaian». Eta, ondorioz, karrozeria eta talleretan lan asko izaten dute beti. «Batzuk autoak itxurarengatik bakarrik eramatea dituzte tailerretara; aleroi bat jarri edo ez dakit zer jartzea poltsigoko izateko, baina benetan garrantzitsua denari erreparatu gabe», dio Miguel Giberaledek. Benetan garrantzitsua dena motora, balaztak eta segurtasun neurriak ahal den egokien edukitzea dela diote gurek eta burak bigarren lekua bete-

## MIKEL ZUBILLAGA • OPEL GIAUTOKO SALMENTA SAILEKO ARDURADUNA

# «Gehienek badakite zer nahi duten etorri aurretik eta prezioari erreparatzen diote»

Zubillagaren esanetan auto beltzak, praktikokoak eta dieselkoak saltzen dira gehien

## R.C.

Opel Giauto Gipuzkoako auto salmentetan garrantzi handiko enpresa da. Tolosaldean Benta Aidea induslariaren duen salhokia eta bertara astero-astero asio dira «behintzat informazio bila» gerturazten direnak. Mikel Zubillaga da bertako salmenta saileko arduraduna eta salzaile onen moduan, badaki nola asidu produktua. «Guk lau urteko garrantia ematen diegu gure bezeroei», argitu du.

## Zein da gehien saltzen den autoa?

Gehien saltzen ditugunak Zafira eta Astra dira. Jendeak auto politak dirrelako erosten ditu.

batik bat. Zafiraren kasuan ahalmen handia du eta urteak dituzten bikoteak asio erosten dute, baina urte gabeleko bikoteak ere sursuko tabla eramateko, eskak eramateko, mendira jeteleko... handitu egiten da eta bi plaza gehiago ere jartzeko aukera ematen du. Opel Vivaro, hala ere, hau da, fungozeta itxurakoko, gasteak asko erosten duten autoa da.

## Eta ba al da inoiz saildu ez duzun autoak?

Egia esan, bai. Opel Agulia ez dute inoiz saildu. Oso auto txikia da, gidatzeko baimenik gabeko eraman daitelako horietako batentzako. Ez dakit zer gaitz izan daitelako.

## Bezeroak timurtzeko izango

hantzat», gaineratu du Giberaledek.

Polita, seguruak, txukunak, azkarrak, handiak, txikiak...

## dituzue eskaintza bereziak edo...

Hori ezinbestekoa da. Guk lau urteko garrantia ematen dugu eta horrez gain baditugu beste zenbait eskaintza ere. Bestela ere, bazkuntza autosi berrikuntzak sartzen dizkiete edota berdiseinatu. Opel Corsa Silbriorearen kasuan, adibidez, GPS eramangarria oparitzen dute, baina jendeak GPSa osagarri soil moduan erosi du autoen eraman gabe.

## Eroleez zeri begiratzen diote bates ere autoa erostera ko garrantzi?

Gehienbat prezioari, noski. Hala ere, oso present izaten dute zein eskaintza ditugun, beharpenak, deskontuak...

Motorrari ere erreparatzen diote. Zafiraren kasuan, adibidez, lehen gehienez 100 zaldiko motorrekin erosten zuten, baina orain 160 zaldikoak 600 euro gehiago bakarrik balo du eta jendeak nahiago izaten du potentzia gehiagoa.

## Eta egin beharreko galdara, dieselak edo gasolinak?

Orain modan dago dieselarena, baina 15.000 kilometrotik gora eginez gero bakarrik meretz du dieselak. Une honetan litro bat diesel eta litro bat gasolinaren arteko aldea euroko 7 edo 8 sentimo dira, kilometro asko egin behar diren kasuetan da errentagarria, bezaz, nik uste dut joera aldatu egingo dela datozen urteetan. «

**ANOETA KARROZERIAK**  
GURUTZE AUTOAK

**Guretzako, bezeroa da lehena.**

TOLOSA MOTOR, S.A.  
Peugeot konzesionarioa  
San Esteban, 14 • 20400 TOLOSA  
Tel.: 943 65 03 37 • Faxa: 943 65 29 38

# «SEGURTASUN ETA HORNIKUNTZA GEHIAGO ESKATZEN DUTE ORAIN»

Azken urteetan jendeak gehiago daki autoen inguruan eta eskakizunek ere gora egiten dutela dio Anoetako Irovisa Citroen-eko saltzaile David Castillok



Citroen C4 izeneko autoa da Anoetako Irovisa Citroen saltokian salduenetakoa; «prezio eta kalitate harreman onagatik» hautatzen dute. HITZA

Eskualdean asko dira autoen salmantan zein konponketan jarduten diren kontzesionarioak; guztietan, gainera, bezeroei tratu pertsonala eta profesionala ematen saiatzen direla diote. Horietako bat David Castillo da, Anoetako Irovisa Citro-

eneko saltzailea, hain zuzen. Bere hitzetan, «gure lan-taldean 26 pertsona egiten dugu lan, eta guztiak bezeroen beharretara ongien moldatzen saiatzen gara». Horretarako, «teknologia berrien laguntza» erabiltzen dute. Eta teknologia

berriak bakarrik ez, haratago ere joaten baitira Citroenekoak, «autoarentzako diagnostiko elektronikoa egiteko azken berrikuntzak ere baditugu eta», azaldu du Castillok.

Bertara gerturatzen direnak «adin guztietakoak» direla dio saltzaileak, baina gazteek nahiago izaten dituztela diesel motorreko («ibilgailu utilitarioak»): «Ahal bada, gainera, kolore ilunetan eta itxura gazte eta berritzaileekin aukeratzeko dituzte autoak gaur egungo gazteek», gaineratu du.

#### Prezioa eta kalitatea

Euren bereizgarri nagusia, hala eta guztiz ere, «prezioaren eta kalitatearen arteko erlazio ona» da saltzailearen esanetan: «Gure autoen salneurriak

eta kalitateak egun merkatuak eskatzen duen joera jarraitzen du, eta, gainera, mantentze lanak, elektronika, osagarriak, karrozeria eta pintura zerbitzuak ere eskaintzen ditugu».

Auto eskaintza zabala dute kontzesionarioan, baina, hala ere, hiru dira auto *kutunenak* Anoetako saltokian: Citroen C3a, Citroen C4a eta Xsara Picasso izenekoak, azkenik. Eta zergatik hauek eta ez beste batzuk? «Prezioaren eta kalitatearen arteko erlazio ona dutelako, batez ere», argitu du inongo zalantzarik gabe Castillok.

Asko aldatu dira gauzak azken urteetan, «azkarregi agian», eta gero eta gehiago dira bezeroen eskakizunak. «Hornikuntza hobea eta segurtasun maila altuagoa eskatzen dute orain», dio. Izan ere, urte-

#### SALDUENAK

C3, C4 eta Xsara Picasso dira Anoetako saltokian, «prezio eta kalitate harreman ona dutelako» izan

an zehar gure errepidetan izaten diren istripu kopuruak ez du behera egiten, eta, ondorioz, «normala da bezeroek segurtasun maila altuagoa eskatzea». Eskakizunei aurre egin ahal izateko Citroenek ikerketa berriak jartzen ditu abian etengabe «bai segurtasun aktiboa zein pasiboan», argitu du. Eta horren erakusle datorren urteko lehen hilabeteetan saltzen hasiko diren C6-aren modelo berria, non, aldaketa eta berrikuntza asko egin dituzten gidatzea erosoago izan dadin.

#### Citroen C6a eta C1a

«C6ak bereizgarri asko ditu: besteak beste, haizetakoan pantaila birtuala duela, gurdibidez nahigabe aldatzean oharpen mezua igortzen duela, norabidea aldatzeko aukera ematen duten aurreko argi bixenonak dituela, esekiduraren malgutasun eta moteltze gidatuak dituela eta, azkenik, 208 zalditako V6 Hdi motorra duela. Egia esan, hauek guztiak icebergaren tontorra besterik ez dira, auto hau oso osatua baita», azaldu du Castillok.

Baina ez diote bakarrik segurtasunari erreparatu, Citroenentzat aipatutako guztia ezinbestekoa den arren, «garantzia handia ematen baitiote diseinuari ere». Ondorioz, «irudi gaztea eta dinamikoa» bilatzen dute beti autoetan. Horietako bat da C1a. «Lau pertsona joan daitezke bertan oso eroso, estilo erakargarri eta gaztea du, baina, batez ere, kalitatea nabarmendu behar da, izan ere, segurtasun maila altua du eta oso prezio onean, gainera. Aukera ezberdinak eskaintzen ditu; hiru eta biostetakoak daude, eta diesel edo gasolina motorretakoak».

**GARAJE SANTA LUCIA**

AGENTZI OFIZIALA **NISSAN** **JOWSERED** **MULTILIFT**

**24 orduko GRUA ZERBITZUA**

**HIAB**

943 65 38 74 **24 ordu**  
943 65 34 91 **GARAJEA**  
943 80 60 20 **PARTIKULARRA**  
**FAXA 943 65 39 85**

Santa Luzia auzoa, 1• Madrid-Irun errep  
TOLOSA

**Citroën C3 HDI 110cv FAP berria**

**ALDATU BIZITZA ALDATU AUTOA**

Hilabete honetan aldatuaraziko zaituzten eskaintzekin

Citroën informazioa: 902 44 55 66  
[www.citroen.es](http://www.citroen.es)

Citroën ek nahiago du **NISSAN** **JOWSERED** **MULTILIFT**

**NISSAN** **CITROËN** 2004-KO MUNDUKO RALLY TXAPELDUNA  
LEHIAKETARAKO TEKNOLOGIA EGUNERO

**Etor zaitetz ikustera:** IROVI S.A Citroën Kontzesionario Ofiziala  
Anoetako Industrialdea z/g • 20270 ANOETA  
Tel.: 943 65 18 42 • [irovisa@citroen-et.net](mailto:irovisa@citroen-et.net)

**CITROËN**

<b>C4</b>	11.430€* -tik aurrera
<b>3.000€**</b>	aurreztuz

<b>C3</b>	9.030€* -tik aurrera
<b>2.500€**</b>	aurreztuz

<b>C6</b>	17.000€* -tik aurrera
<b>4.000€**</b>	aurreztuz

<b>C2</b>	8.410€* -tik aurrera
<b>2.500€**</b>	aurreztuz

<b>C3</b>	12.300€* -tik aurrera
<b>4.000€**</b>	aurreztuz